

Kanalak:

Kanalen bidez, gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea lortzen dugu, gure balio-proposamena transmititzeko. Guk salmenta-kanala erabiltzen dugu bezeroei banatzeko. Gure bezeroekin harremanetan jartzeko bi modu ditugu: gure web orria eta enpresaren telefono-zenbakia. Bezeroa gurekin harremanetan jarri eta behar duena esan ondoren, gu gure produkzio-enpresarekin jarriko gara harremanetan, eta bezeroak eskatu duena eskatuko dugu. Ondoren, produktua iritsi arte aste batzuk itxarongo ditugu, eta bezeroari kamioi batean bidaliko diogu.